

ORAIN ARTE DAKIDANA

Iziar Basterretxea

Finalista (compartido) en el Concurso de Artículos Pyrenaica-83, premio concedido «por ofrecer ambos una buena calidad dentro de estilos y enfoques diferentes».

Euri tanta bat, sudurretik laban eginda, lurrera jauzten da eta kriztalezko pilota bat bihurtuta, kolorezko disdirak bidaltzen dizkit begietara. Danak datoz batera eta kolore baikoitzean, oroimen ezberdinezko zalditxoak.

Gogoratzen dut hona etorri nintzen lehenengo eguna: Autobusez, jende pila bat, erdi galduta, bildurrik ez —ez nekien nora eta zertara nentorren eta— lotsa agian. Gogoratzen dut eguzkia, zarata, mutilak: neska moko bat, nire sexotaz ondino ez banintz konturatu ere, laister adieraziko zidatekeen beraiegandik aparteko gauza bat nintzela, «Neskak ez ditugu onartuko, ligatzera baino ez datoz eta», «Borrokatu beraiekin? begira, ni horretarako ez naiz mutilekin elkartzan»... Aurrera jo genuen.

Urresteirantzako bidea amaigabea zen, eta «Irakasleak» kantatzen zuen doinu ez-tzunez, harriak laztantzen hasi nintzen.

Ur tantak lurretik banatzen dira, egun haietako koloreak ikusten ditut: Zeru urdinen kontra, ormeetako zuritasuna; Labargorriko Eguzki Harriko disdir gorriak; Aitz Txiki dituen laino bigunak, erdi grisak; pagoen hosto laranja udazkenean; erreka ur berbatsuak, eta, han, urrunean, mundua bukatzen zenean, Urkiola mendia, Saibigain, Oiz atzekaldean... urdinak bihurturik, eguzkia eta zerua batu egiten zirenean.

Mundu berri bat ezagutu nuen: arazo berririk: itsasoa baino ederragoak begi haiek; nire gorputzaren arrarotasunak; arrazoi gabeko —gabeko?— malkoak; ni ez naizela neska bat, lagun bat baizik.

Askotan pentsatu dut, pertsonak eta bizitzaren arazoak, ormak bezalakoak direla; urrundik ikusita: tente, zailak, gogorak..., behin hurbilduz gero ia beti aurkitzen dituzu zulotxoak, egonlekuak... aurrerantza egiteko aukerak.

Egun disdiratsu hauetan, hatxen eta hatxen sekretuen izenak ikasi genituen, harrien

zulotaz jabetu ginen, iturri ondoko zuhaitzak batzartokiak bihurtu ziren eta ametsak, ikusten ez genituen mendien tontorrak.

Niretzat, Alluitzek eta Untzilaitzek, izkutua eta bakarra zen ibar bat mugatzen zuten. Ez zen ezer hatxostean, ondino etnozentrismo epe baten zegoen nire burua: hatxostean ez zen ezer, baina, beharbada, hatxaurrean ere ez. Abadinotik zetorren erromatar bidea ezagutzen nuen baina bizigabeko harri zaharrak ziren; baserriak, kanpoko ormak baino ez.

Nire orduko Atxarte munduan, harriak eta taldekoak baino ez ziren agertzen. Heriotzak ez ninduen bildurtzen eta, mendia, zerbait irabazteko zen: Munduko mundurik ederrena eta zintzoena. Behar bada, hiritar arrotzen begiak ziren nireak.

Odei baltz bat sartu da orain zeruan ez dakit nola eta, konturatu gabe, pilota grisez osatutako txaparrada batekin aurkitu naiz. Oroimenezko zalditxoek alde egin dute eta ezagutzen ez ditudan hegazkin ilun-isilak hurbiltzen zaizkit.

Epe baten, eta batbatean ere, nire bihotza hegazkin hauen lumaz ez tali zen.

Hatxak ilundu, bere izenak isildu, nire mundua eta biok galdurik, deslailak genbiltzen landa beltzetatik.

Bakartasunaren hots gozo-mingotsa ikasi nuen. Ikasi nuen ere —zubia pasatuz eta Urkiolarantzako pinudi arteko bidea harturik— hostoek erabiltzen dituzten hitz apurtuak; haizearen doinuak; bihotzaren taupaden erritmoa. Artolatik joanda eta Alluitzerantza igoten, zenbat balio duen gogoak eta anka —arraro hauek— arintzeko ordaindu behar nuen izerdiaren laztana.

Neure burua gainditu behar nuen.

Orduak eman ditut Artola ondoko zelai baten, dana begiratzen, mamurtzen, neureganatzen. Euriek eta Urkiola-mendi gainetik pasatzen diren odei gris potolotxoak gero Untzilaitz edo Alluitzeko hatxetan zintzilik gelditzen direnek, bigundu egin dute neure bihotza.


Egun hauetan bota egin zituzten erreka ondoko zenbait zuhaitz, eta harrobiaren zuloa handitu egin zen. Urtez urte, zuhaitzen gutxitasuna, harrobiaren zuloa eta Labargorriantzako bideak izan dituen aldaketak, denboraren adierazle nabariak izan dira.

Hau izan zen nire epe, nola esan, mistikoa? behar bada.

Orduantxe, neure burutaz jabetu nintzen, mundua kanpoko zerbait bihurtu zen; gauzatu, objetibatu egin zen eta apurtze honetan, amarengandik alde egin behar izan nuenean, min sentitu nuen, bildurra —agian— lehenengoz, eta, aparteko mundu horretan, nahi eta ez bizi egin behar nuela pentsatzeak, kontrako erantzuna sortzen zitzaidan erraietan, ihes egiteko gogoak, borrokatzeko indarbako eta gogobakoa nintzen. Ausartia eta txepela batera, nola ulertu kontraizan guzti hauek?, nola leporatu?

Loak hartu nau eta, begiak zabaltzean, eguzkia knabaritzen da odei artean, hegazkinek alde agin dute.

Ur tanta baten barruan nago, udaberriko egun berdeetara itzuli naiz. Eta, itzuli orduko, bizitzaren indarra berriz, pil-pil eginez, hatzamarretara baita ileetara ere heltzen zait. Berraurkitutako udaberri hartako ezagutzak bizirik daude orain: errekaaren esperientzia: oinak bustirik eta goialdeko urjauziak pasatuz, Urkiolara doan bidera iristen gara. Erreka, aparteko leku bat da: lanbrotsua, hezea, berde-berdea. Atxarteko mentarik ederrena lortzen da han, eta, leku askotan eguzkia, hostoen artean, argi txiki berde bat baino ez da. Gauak eta hilargiak: epelak, zuriak, isi-



lak. Epel, zuri eta isiltasunen usainak.

Hauzoak: Mendiola, Sagasta. Hauzoko baserri ederrak, txakur zaratatsuak, bidez-
kak: Mendiolatik Durangora; Sagastatik An-
botora...

Jendea: Juan eta Irenen tabernetan har-
tzen dugun kafe bero gozoa, Irenek orain
boiloak eta guztiz eramaten ditu igandeetan.
Eliza apaintzera doazen eta musean egiten
duten andratxuek, beti euskaraz egin behar
dugula esaten digute. Pedro artzainak ba
daki loditu edo argaldu zaren. Bide ondoan
dagoen baserriarren iritziz, baserrira ez du-
telako ezkondu nahi, emakumeak dira base-
rriarrak kalera joatearen errudunak.

Ba daude ere eliza zikitzen dugulako eta
apaiza datorrenean oraindik sakueta gaudela-
delako hainbat arazo. Ondino kale-baserri
arteko burruka ez da bukatu. Behar bada,
kaletarrek, mendia geuretzat dela pentsa-
tzen dugu, besteen bizitzak kontuan hartu
gabe. Agian ez dugu pentsatu, ez, bakarrik,
mendia guretzat, baizik eta gu mendiaren-
tzat ere, ba garela.

Egun udaberritsu hauetan bihotza sagar
heldu bat bezalako zen.

Jendearen artean ere ezberdintasunak
aurkitu nituen: katuoinak, txandalak, kolo-
reak, zapiak... lehenengotan kolpe bat izan
ba zen ere, laister sartu nintzen ikur hauen
inguruan.

Berpizte bat izan zen, bai, baina orain ba
nekian: emakumezkoa nintzela eta sexuga-
beko lagunik ez eta areriorik ere ez dagoela;
erromatarren bidea Erdi Harokoa zela; neure
ibar izkutua guztiz ezaguna zela osaturiko,
besteak bezalako mundu bat baizik.

Baina ez nuen pentsatu, «koitedue»!, sa-
gar helduak ere usteldu egiten direla.

Ur tanta honetan lainoa sartu da, gero eta
gutxiago ikusten dut, non dago nire burua?
buelbaka eta bueltaka nabil, jira-bira ero ba-
ten galduta: eguzkirik ez, argirik ez, euririk
ez, kolorerik ez. Mundua lehertu egin da.
Imajinak ezabatu egin dira: katuoinak eta
txandalez jantzita dabiltzanak ez dira erral-
doiak, askotan bizitzaren aurreko bildurrak
eta hutsunak ezaltzeko, harrietara jo duten

gizaki ahulak bihurtzen dira: lagun arruntak.
Neu ere: ez naiz trebea, ez indartsua, ausar-
tia ere ez. Nire heriotzaren aurreko bildurra,
bizitzaren aurrekoa agerturik, ezin dut men-
diaren bidez apurtu. Inork ez dio —belaunak
besarkatuz— Cronidari ezer esango nitaz.
Maitasunak ez du inoiz bakardadea apurtu-
ko eta zaharra sentitzen naiz, neskato baten
begirada berri disdiratsua aurkitzean. Bizitza
eta norberaren kontraizanak, denok leporatu
behar ditugun zama astunak dira.

Bakarrik nago —bakarrik gizartez eginda-
ko gizaki bat?— eta negar egiteko gogoak
datozkit.

Euri tanta lasaitu egiten da, mendi baten
aldatsean nago, edurtzan, nekatuta. Goian,
deika, eguzkia ikusten da.

Gaurko Sisifo bat bezala, geure landak,
hatxak, lagunak... hain ahul eta arazogarri
suertatu zaizkidanak... gogoratzen ditut, eta
zorionsua sentitzen naiz.

Etxean begiratuko dut, zein den mendi
honen izena.

Itzuliko naiz.